

# ACTO DE CLAUSURA

## E. KNÖRR

*Presidente de la Comisión de Onomástica  
y Director de las Jornadas*

Bukatzeko garaia iritsi zaigu. Eskerrak eman nahi ditugu, eta eskerrak denei. Eta ez naiz hasiko lerrokada egiten, zeren lerrokadetan nabarmenenak hutsarteaK izaten dira. Kanpotarrak izan ditugu geure artean eta ohore izan zaigu hemengo haien egonaldia. Otoi, hemendik aurrera ez dezatela jo beren burua kanpotartzat, etxekotzat baizik.

En el momento de clausurar estas Jornadas, cúmpleme dar las gracias a todos los que han contribuido a su éxito, pidiendo perdón por los fallos que sin duda ha habido. Como Etxepare en su libro, nuestro voto es «Debile principio melior fortuna sequatur». Deseo especialmente agradecer la presencia de cuantos han acudido desde otros lugares. Esta presencia ha constituido un honor para nosotros y quiero pedirles que se consideren ya de casa. La Onomástica sigue atrayendo mucho interés. No desde el punto de vista de la Ontología, pero sí desde la Lingüística, afortunadamente *Izena duen guztiak izana ere badu*, es decir, «todo lo que tiene nombre, tiene también existencia».

Ez adiorik, beraz, hurren arte baizik.

## E. BIZKARRALEGORRA

*Directora del Instituto Vasco  
de Administración Pública*

Gure aldetik ere eskerrik asko Jardunaldi hauetara etortzeagatik. Hauen arrakastak adorea ematen digu aurrera jarraitzeko, eta beste aldetik, zuen proposamenak oso kontutan izango ditugu geure Erakundean.

## L. VILLASANTE

*Presidente de Euskaltzaindia*

Euskaltzainburu bezala, esan behar dut poz handia hartu dudala Jardunaldi hauengatik. Esan behar dut, gainera, neretzat ustekabe bat izan direla. Uste dut txostenak oso kalitate handikoak izan direla eta entzulegoa egon dela adi etengabe. Lehenak zirenez gero, Jardunaldi hauek orokorrak izan dira eta, hala beharrez, gauza asko kanpoan gelditu dira. Eskerrak, beraz, guztiei, eskerrak antolakizun lanetan aritu direnei, ahaztu gabe Mapagintza Erakusketa gauzatu dutenak.

Como Presidente de Euskaltzaindia, tengo que agradecer a todos los que han contribuido al éxito de estas Jornadas. Debo reconocer que para mí han sido una gran sorpresa, porque hemos asistido a una reunión científica de altura, con una concurrencia que seguía las intervenciones con gran interés. El objetivo de Euskaltzaindia se ha cumplido: ofrecer un panorama general sobre problemas de la toponimia. En años sucesivos espero tener la oportunidad de saludar a todos en Jornadas de carácter quizá más monográfico. Todos somos conscientes del trabajo que tenemos por delante. Nos puede traicionar la prisa y habría que recordar el dicho «Vísteme despacio que tengo prisa».

Gracias al Gobierno Vasco y a los que, venidos de tantos sitios distantes nos han honrado con sus lecciones. Como ha dicho E. Knörr, que no se consideren extraños aquí, porque son hermanos, copartícipes de una preocupación común. Se trata de salvar un patrimonio, cosa muy legítima, y ellos nos pueden ayudar evidentemente y por eso todos hemos de trabajar en coordinación. Así que doy las gracias a todos, felicito a todos y me felicito a mí mismo y a la Academia por estas Jornadas que nos dejan un sentimiento ciertamente reconfortante.

## MARI KARMEN GARMENDIA

*Directora de Política Lingüística del Gobierno Vasco*

Bukatutzat emateko Jardunaldi hauek, bukatutzat emateko hune honetan, nik ere Jaurlaritzaren izenean, Hizkuntz Politikarako Idazkaritzatik, eskerrik beroenak eman behar dizkizuet denoi, hain lan ona egin delako. Badakit atariko besterik ez dela, sarrera dela, baina, nere ustez oso sarrera egokia, ondoren, hemen esan den bezala, bai ikerketa mailan eta bai hizkuntzaren normalizazioaren mailan irizpideak eta aholkuak mamitzeko. Eskerrak beraz, bihotz bihotzez, eta zorionak opor garaian lanean jarduteko adorea izan duzuen guztioi, bai Euskaltzaindikoei, bai etorritako ikertzaile eta ikasleei, eta baita ere hainbat herritatik gerturatu zaigun jendeari.

Dos palabras para agradecer, en nombre de la Secretaría de Política Lingüística del Gobierno Vasco, a todos los que con mucho humor, con mucho espíritu de trabajo, han asistido estos días a las I Jornadas de Onomástica. Mi felicitación sincera también porque creo que por primera vez se ha hecho un trabajo que merece la pena y que sin duda es el prólogo de otras muchas cosas valiosas que van a venir y muy pronto. Quiero agradecer la participación de todos los representantes de las distintas Comunidades del Estado y de la Universidad francesa que se han acercado hasta nosotros estos días y han tenido a bien colaborar en esta tarea. Gracias y felicidades por el buen trabajo llevado a cabo.